

---

# **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA ETA GENERO IKUSPEGIA (2021-2024)**

**EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA FUNDAZIOA**

---



2021eko abendua

## Aurkibidea

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA ETA GENERO IKUSPEGIA 2021-2024 .....	3
LEGE, ARAU ETA BETEBEHARREN TESTUINGURUA.....	3
PLANAREN IRAUPENA .....	3
LAN-ARDATZAK ETA HELBURUAK.....	4
BERDINTASUNERAKO PLANA EZARTZEKO, HAREN JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO BERDINTASUN TALDEA.....	5
PLANA EZARTZEKO AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK .....	5
1. ARDATZA: GOBERNANTZA .....	7
G1. KONPROMISOA .....	7
G2. GAITZEA .....	8
G3. LAN-PROZEDURAK .....	8
G4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA .....	10
2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA BALIO ALDAKETA .....	12
A1. AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA .....	12
3. ARDATZA: ERALDAKETA EKONOMIKO ETA SOZIALA.....	13
EES1. BERDINTASUNA ERALDAKETARAKO BALIO GISA.....	13
4. ARDATZA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK .....	14
IGB1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA .....	14
IGB2. DETEKZIOA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA .....	14
IGB3. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA .....	15

# **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA ETA GENERO IKUSPEGIA 2021-2024**

## **LEGE, ARAU ETA BETEBEHARREN TESTUINGURUA**

Asko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hainbat alderditan sustatzeko berriaz sortu diren lege eta gidalerroak: bizitza sozialean, ekonomikoan, hezkuntzan eta abar. Guztiek dute helburu berdintasun formala edo legala benetako berdintasun eraginkor bihurtzea.

Modu zuzen eta hurbilago batean, EGOk bere inguruneke legeen eta arauen garapenari erantzun behar dio, eta, hala, EGOn lege-erreferente nagusia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legea da.

Azkenik, arlo honetako erreferente tekniko nagusia EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana da, baita eta Eusko Jaurjaritzaren XII. Legealdian osatu beharko den VIII. Plana ere. Izan ere, plan honek euskal erakunde publikoen sare osoa hartzen du barnean: ezinbesteko dutenak balioen aldaketa, emakumeen ahalduntzea bultzatzea, indarkeria matxista desagerraraztea eta abar.

Berdintasunerako I. Plan hau eguneratu beharko balitz, EAEko Administrazio Orokorrarekin lotura zuzena duten 50 langile baino gutxiago dituzten erakunde publiko edo zuzenbide pribatuko erakundeek aplikagarri zaizkien lege edo arauak dagozkien aldaketa edo berrikuntzengatik, beharrezko diren aldaketa guztiak egingo lirateke, egoera berrira egokitzeke.

## **PLANAREN IRAUPENA**

EGOn emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Planak eta genero ikuspegiak 2021-2024 bitarteko iraupena izango du.

EGOn Patronatuak oraindik zehazteke dagoen bere hurrengo bileran onartuko du plana.

## LAN-ARDATZAK ETA HELBURUAK

Ondoko ardatz, helburu eta lan-jarduerak proposatu dira, Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuak EAeko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planean onartutako egitura oinarri hartuta:

1. ARDATZA: GOBERNANTZA	Helburuak EGOn
<b>G1. KONPROMISOA</b>	Emakume eta gizonen berdintasunerako plan bat eta genero ikuspegia izatea, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan dituen arau eta jarraibideetara egokitua, eta hura ezartzeko eta jarraitzeko baliabidez hornitua.
<b>G2. GAITZEA</b>	EGoko kideak berdintasunari eta genero ikuspegiari dagokionez gaitzeko erraztasunak ematea.
<b>G3. LAN-PROZEDURAK</b>	<p>Genero ikuspegia kontuan izango duten balizko azterketetarako estatistika eta adierazleak jasotzea.</p> <p>Berdintasuna bermatzeko bitartekoak kontuak izango dituzten barne-kudeaketarako eta pertsonen kudeaketarako prozedurak izatea.</p>
<b>G4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA</b>	Beste eragile batzuekin berdintasuna sustatzeko lankidetzaren harremanak ezartzea.

2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA BALIO ALDAKETA	Helburuak EGOn
<b>A1. AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA</b>	Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntze indibidual nahiz kolektiboa sustatzea.

3. ARDATZA: ERALDAKETA EKONOMIKO ETA SOZIALA	Helburuak EGOn
--	----------------

<b>EES1. BERDINTASUNA ERALDAKETARAKO BEHARREZKO BALIO GISA</b>	Emakume eta gizonen berdintasunari ingurunearen eraldaketa ekonomiko eta sozialerako balio gisa heltzea.
	Komunikazio ez-sexista baliatzea komunikazio elementuetan, material teknikoetan eta esku-hartzeetan.

4. ARDATZA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK	Helburuak EGOn
<b>IGB1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b>	Emakumeen kontrako indarkeria eta jazarpena saihesteko sentsibilizatu eta trebatzea.
<b>IGB2. DETEKZIOA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA</b>	Emakumeen kontrako indarkeriarekiko prebentzioa eta arreta bermatzea, EGOn jarduera-eremuan.
<b>IGB3. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA</b>	Erakundeekin lankidetzan aritzea emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, gizarteari, hezkuntzari nahiz esku-hartze terapeutikoari dagokionez.

## BERDINTASUNERAKO PLANA EZARTZEKO, HAREN JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO BERDINTASUN TALDEA

**Berdintasun Taldea** ondokoek osatzen dute:

- Germán Ormazabal, Koordinatzaile Nagusia.
- Auria Etxeandia, Idazkaritza Teknikoa eta Komunikazio Arduraduna.

Planaren ezarpenaren jarraipena egiteko, **urtean gutxienez bi bilera** egingo dira, bat ekitaldiko ekintzak diseinatzeko eta bestea hauek ebaluatzeke edo doitzeko.

Planeko ekintzak abian jartzeko, jarduerak behar bezala garatzeko egokitzat jotzen diren beste bilera batzuk egin ahal izango dira.

## PLANA EZARTZEKO AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK

EGOk inbertsio-ahalegin bat bere gain hartuko du (urteko aurrekontuaren araberakoa), ekintza batzuk ezartzeak izan dezakeen kostu ekonomikoak eta kudeaketa globalak nahiz barne-ezarpenak zehaztutakoa (pertsonek kopurua eta ordu kopurua kontuan hartuta).

Plana ezartzeak ekar dezakeen barne eta kanpo kostuaren gaineko urteko bataz-bestekoaren aurreikuspenak egin ahal izango dira.

# 1. ARDATZA: GOBERNANTZA

## G1. KONPROMISOA

**Emakume eta gizonen berdintasunerako plan bat eta genero ikuspegia izatea, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan dituen arau eta jarraibideetara egokitua, eta hura ezartzeko eta jarraitzeko baliabidez hornitua.**

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
1	Emakume eta gizonen berdintasunerako plan bat eta genero ikuspegia izatea, berdintasuna lortu arteko indarraldia eta baliabideak dituen.	Plana existitzea. Planaren indarraldia. Erabilitako baliabideak.		Talde koor.
2	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana EGOn plangintza estrategikoan eta zehazten diren urteko kudeaketa-planetan sartzea.	Berariaz aipatzen duen plan estrategikoa. Berariaz aipatzen dituzten urteko kudeaketa-planak.		Talde koor.
3	Urtero aurrekontua ezartzea emakumeen eta gizonen berdintasunari dagozkion ekintzetan.	Aurrekontua.		Talde koor.
4	EGOk lantalde egonkorreko pertsona bat berdintasunerako Planaren Arduradun izendatzea, erakundeko gainerako pertsonak gida ditzan, EGOk gainerako ekintzetan bezala, talde koordinatu bezala lan egin dezaten.	Lan taldea existitzea. Taldea-lanaren akta edo bestelako ebidentziak.		Talde koor.
5	EGOn webguneko edukien artean emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso zehatza sartzea, eta hori lortzeko planaren, helburuen eta ekintzen berri ematea.	Webguneko edukiak.		Talde koor.
6	Planak ekarritako emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko aurrerapausoei buruzko txosten labur bat egitea urtero eta egiturako lan-taldeari nahiz erakundearen Patronatuari ezagutaraztea.	Txostenak.		Talde koor.

7	Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko Emakunde-ek ematen duen Lankidetzaren Erakundearen aitortzea eskatzea Plan honen ezarpena amaitzean.	Aitortzearen eskaera.		Talde koor.
---	---	-----------------------	--	-------------

## G2. GAITZEA

EGOko kideak berdintasunari eta genero ikuspegiari dagokionez gaitzeko erraztasunak ematea.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
8	Komunikazioan hizkuntza ez-sexistaren erabilera buruzko oinarriko prestakuntza edo autoprestakuntza egitea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak arlo horretan euskararako eta gaztelaniarako dituen gidak baliatzeko aukerarekin.	Prestakuntza ekintzak. Orduak. Trobatutako pertsonak.		Talde koor.
9	EGOko kideek berdintasunari dagozkion prestakuntzak jasotzea Emakunde eta beste erakunde batzuen eskutik.	Orduak. Trobatutako pertsonak.		Talde koor.

## G3. LAN-PROZEDURAK

Genero ikuspegia kontuan izango duten balizko azterketetarako estatistika eta adierazleak jasotzea.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
10	Pertsonen dagozkien erregistro estatistiko guztiak izatea (langileak, zuzendaritzak, irakasleak, ikasleak) sexuaren aldagaia bereizita.	Adierazle erabilgarriak.		Talde koor.
11	Urteko memoriek edo txostenek emandako datuak sexuaren arabera banakatzea.	Adierazle erabilgarriak.		Talde koor.



12	Gazteei egiten zaizkien gogobetetze-inkestetan sexuaren aldagaia sartzea, eta inkestek lortutako emaitzak genero-ikuspegitik aztertzea.	Inkesta erabilgarriak.		Talde koor.
13	Gazteen artean azterketa espezifiko egitea, EGOen, haien jatorrizko prestakuntza zentroetan eta helburu duten musika profesionaleko esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko duten pertzepzioari buruz.	Azterketa espezifiko. Parte-hartzaileak		Talde koor.
14	Egungo lan-legediak eskatzen duen urteko soldata-erregistroa egitea (902 Errege Dekretua), eta erregistro horretan gerta daitezkeen aldaketen jarraipena egitea.	Egindako urteroko erregistroa.		Talde koor.
15	Urteko aurrekontuan edota EGOren urteko kontuetan generoaren eragina txertatzea.	Genero ikuspegia duten aurrekontu edota kontuak.		Talde koor.
16	Urtero Soldata Erregistroa egitea emakumeen eta gizonen soldata-berdintasunari dagokion 902 EDaren arabera, eta erregistroa hala eskatzen duten langileen eskura jartzea.	Urtero eguneratutako Soldata Erregistroa.		Talde koor.

**Berdintasuna bermatzeko bitartekoak kontuak izango dituzten barne-kudeaketarako eta pertsonen kudeaketarako prozedurak izatea.**

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Arduraduna
17	EGOk berriazko konpromiso dokumentu bat egitea: emakumeen eta gizonen berdintasun eza desagerrarazteko egingo duen barne-lanarekiko eta gai honi dagozkion politika publikoetan parte hartzearekiko. Hala, estereotipo eta bestelakoei aurre egiteko eta berdintasuna bermatzeko neurriak hartzeko.	Jardunbidea.		Talde koor.

18	<p>EGOren barne-funtzionamenduari eta jardura profesionalari lotutako balioen eta portaeren jarraibideak jasotzen dituzten dokumentuak izatea, kolektibo nagusi bakoitzarentzat (profesionalak, zuzendaritzak eta irakasleak, batetik, eta ikasleak, bestetik).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harrera-eskuliburua.</li> <li>• Kode etikoa edo jokabide-kodea.</li> </ul>	<p>Dokumentuak. Pertsona hartzaileak.</p>		<p>Talde koor.</p>
19	<p>Berdintasunerako Plana indarrean dagoen bitartean sexu-aldagaia eta berdintasun-pertzepzioarekin lotutako galdera espezifikoak txertatzea egin daitezkeen klimari, gogobetetzeari edo arrisku psikosozialei buruzko inkestetan, emaitzak behar bezala balioesteko.</p>	<p>Genero ikuspegia duten barne inkestak.</p>		<p>Talde koor.</p>

## G4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Beste eragile batzuekin berdintasuna sustatzeko lankidetzak harremanak ezartzea.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Arduraduna
20	<p>Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpaina instituzionalak zabaltzen laguntzea.</p>	<p>Kanpainak. Ekintzak.</p>		<p>Talde koor.</p>
21	<p>Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta EGOrerantz interesgarriak izan daitezkeen beste erakunde batzuek antolatutako ekimenetan parte hartzea.</p>	<p>Ekintzak. Erakundeak.</p>		<p>Talde koor.</p>

22	Atxikitako erakundeak (atxikitako patronoak) berdintasunaren arloko ekimen espezifikoen, musikaren eremuan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenetan edo esparru horretan berdintasuna sustatzen duten ekimenetan lotestea.	Ekintzak. Erakundeak.		Talde koor.
----	---	--------------------------	--	-------------

## 2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA BALIO ALDAKETA

### A1. AHALDUNTZE INDIBIDUALA ETA KOLEKTIBOA

Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntze indibidual nahiz kolektiboa sustatzea.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
23	Emakume erreferenteen kontratazioa eta ikusgarritasuna sustatzea (orkestra zuzendariak, bakarlariak edo antzeko eragina duten rolak), aurrekontuaren arabera.	Emakume kontratatatuak  Ikusgai bihurtutako emakume erreferenteak		Talde koor.
24	Inkesta bat egitea EGoko gazteei (gaur egungoei, eta baita iraganean EGOTik igarotakoei ere, komenigarritzat jotzen bada), musikaren arloan, oro har, eta bereziki EGOREkin duten harremanean arlo horretan dituzten bizipenak edo pertzepzioak ezagutu ahal izateko.	Inkesta  Parte-hartzaileak		Talde koor.

### 3. ARDATZA: ERALDAKETA EKONOMIKO ETA SOZIALA

#### EES1. BERDINTASUNA ERALDAKETARAKO BALIO GISA

Emakume eta gizonen berdintasunari ingurunearen eraldaketa ekonomiko eta sozialerako balio gisa heltzea.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
25	EGOren balio esplizituen artean txertatzea musikari eta kulturari lotutako gaietan emakume eta gizonen dagozkien estereotipo eta aurreiritziak gainditzen laguntzeko konpromisoa.	Modu esplizituan aipatutako balioa  Hori azaltzen duten euskarriak		Talde koor.
26	EGOk emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa eta berdintasunerako plana zabaltea inguruko eragileen edo interes-taldeen artean.	Zabalkunde-jarduerak.		Talde koor.
27	EGOrekin profesionalki lotutako pertsonen familia-errealitateei eta kontziliazio-beharrei buruzko inkesta egitea (irakasle eta zuzendaritzekin, batez ere).	Garatutako ekimenak.  Parte hartu duten pertsonak.		Talde koor.

**Komunikazio ez-sexista baliatzea komunikazio elementuetan, material teknikoetan eta esku-hartzeetan.**

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
28	Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista orokortzea EGOk landutako komunikazio-dukietan, egungo euskarri edo kanalak gainbegiratu eta zuzenduz (webgunea, batez ere).	Sortutako komunikazio edukiak.  Gainbegiratutako kanalak.		Talde koor.

## 4. ARDATZA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

### IGB1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

IGB1.1. Emakumeen kontrako indarkeria eta jazarpenera saihesteko sentsibilizatu eta trebatzea.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
29	Sexu-delituen ziurtagiriaren bilketa sistematizatzea 18 urtetik beherakoekin harremanetan jartzen direnentzat, EGO n egiten duten lan profesionalen (Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa kontuan hartuta).	Sortutako prozedura Neurriak eragingo dien pertsonak		Talde koor.

### IGB2. DETEKZIOA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA

Emakumeen kontrako indarkeriarekiko prebentzioa eta arreta bermatzea, EGOren jardura-eremuan.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
30	Sexu-jazarpenerarekiko eta sexuan oinarritutako jazarpenerarekiko prebentzio eta jardura protokolo bat egitea, EGO rako nahiz EGO rekin harremana duten ikasle parte-hartzaileentzako.	Protokoloa.		Talde koor.
31	Prestakuntza espezifikoa eskaintzea protokoloan parte hartuko duten EGO ko kideei.	Orduak. Pertsonak.		Talde koor.

### IGB3. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOA

Erakundeekin lankidetzan aritzea emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, gizarteari, hezkuntzari nahiz esku-hartze terapeutikoari dagokionez.

Zk.	Ekintza	Adierazlea	Data	Ardura-duna
32	Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, informazio interesgarria eta jardunbide egokiak ezagutzera emanez, edo indarkeria horri aurre egiteko erakundeen artean antzemandako hobekuntza-beharrak salatuz,. Baita, azaroaren 25eko kanpaina instituzionala (Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna) ezagutaraziz ere.	Ekintzak		Talde koor.